



## Euskararen berri OLAtu gainean

### 2018ko IRAILEKO ALBISTEAK

#### Euskaraldia, merkatari eta ostalariei gerturatuz

Euskaraldiaren bueltan, lau bideo grabatu dituzte Eskoriatzako eta Aretxabaletako batzordekideek, Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazio ikasleekin batera. Euskaraldia eta merkataritza eta ostalaritza batzen dituzten bideoak dira.

#### «Bizitza lapurtu zidaten euskara kendu zidatenean»

Helduaroan euskaldundi den pertsona batek bere bizipenak kontatu ditu Twitterren.

#### Udalerrri euskaldunen garapena, aztergai

Urriaren 10ean izango da "Lurraldea eta Hizkuntza. Arnasguneen prebentziotik garapenera" izeneko jardunaldia eta izen emateko epea irekita egongo da urriaren 5era arte

#### Euskara eta kirola uztartzen dituen Euskal Kirolari projektua crossfit-a, surfa, mendizaletasuna, saskibaloi egokitua, atletismoa edota igeriketa bezalako kiroletara hedatuko da denboraldi berria hastearekin batera

Miren Doberan Hizkuntza Politikako sailburuordeak eta Jon Redondo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak azaldu dutenez, ekimen honek teknologia berrien eta erreferentziazkoi kirolarien bidez sustatuko du euskara eta euskarazko terminologia kirol arloan.

#### «Gauza zail bat egitera goaz: euskara defektuz erabiltzera»

Euskal Herriko, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako eta Arabako Lautadako koordinatzaileak dira, hurrenez hurren, Arrate Illaro, Jenofa Berhokoirigoin eta Asier Lafuente.

#### Ikasleen euskara mailak kezkatuta, neurriak hartzen ari dira ikastolak

Galera «kanpo faktoreekin» lotu arren, hizkuntz proiektua gaurkotzen hasi da elkartea. Eskola segregazioa saihesteko gogoeta egiten ari da.

#### Nerea Redondo: "Edonork ez dauka gaitasunik edo baliabiderik hizkuntza-gatazka bati aurre egiteko"

Nerea Redondo eta bere ahizparen asmoa triatloia probatzea zen. Hala gerturatu ziren ekainaren 23an Donostiako X. Emakumezkoen Triatloira....

#### Euskaraldia: zer, non, nor, noiz eta nola.

Euskaraldia zer den azaltzen duen bideoa.

#### 'Sorosle onak edo sorosle euskaldunak?'

Astelehen honetan gertatu zitzagun, irailaren 3an. Kaiko ontzia hartuta, hor joan gara bi txikiek Santa Klarara. Uhartera iritsi eta bazter batean jarri gara. Itsasoa harro dabil. Olatuek gogor jotzen dute eta kolpe horietako batek harrapatuz gero, aberia polita e...